

Antxiñako fotografia



Zuazolako zubixa

Hogetamarren bat urte izango dira **Zuazolako harrizko zubi zaharra** bota zala. Metro batzuk beheratxuago porlanezko barrixa jaso zanian, hain zuzen be. Inguru horretatik pasiuan ibiltten zarieiñok ondotox dakitzuenez, Zañartu aldeko zubixa zan bata eta da bestia. Baiña, egogixagua litzake esatia **Zañartu** auzua eta **Garagaltza** auzua lotzen ebena zala zaharra eta dala barrixa. Izan be, paraje horretan, **Artixa** errekiaren ezkeraldia Zañarturi dagokixo, eta eskumaldia Garagaltzari. Alde batian, zubi ondoko Tomasena, Ditzosuenta eta Etxezuri baserriak Zañartun dagozen lez, zubixaz bestaldeko Zuazola, Benturena eta gorago-ko Iraban Garagaltzakuak dittugu.

Botatako zubixa aspaldikua zan, duda barik, izena emuten otsan Zuazolako errotiaren aztarranak XV. gizaldixaren bigarren erdialdiko dokumentuetan dagozelako. Lamiategiko errotia 1488. urtian eraiki zala badakigu, eta ordurako ba ei zan Zuazolakua. Horrek **Oñatiko errotarik zaharrenetarikua** zala esan gura dau. Horregatik, zubixa oso antziña jasotako pasabidia izango zala uste dogu. Errotiak, Oñatiko gehixenak letxe, orain dala berrogei bat urte pasatxo itzi otsan ixotiari. Argazkixa zubi zaharra eretsi baiño lehen-txuago atarata egongo da, 1970ko hamarkadiaren azken aldera, zubi barrixaren obriak eragindako zakarrak erreka barruan agiri dira-eta.

Zoritxarrez, etzan hau izan Oñatin desegindako azkenengo zubi zaharra. Harrezkero bota edo ordezkau dira beste batzuk be, kalian nahiz auzuetan. Eta oraintxe periodikuetan irakurri barri dogunez, egun gutxi geraketan xako Zubillagako errota onduan dague XVI. gizaldiko zubixari.

J. E.

Fotografia Joxe Urzelaik ataratakua da eta berak eskuratu dosku. Argibidiak, barriz, Joxeri ez ezik, Jabier Galdoseri be zor xaugu. Milla esker bixoi.